# - GR 283 -

## IDIAZABAL GAZTAREN IBILBIDEA
RUTA DEL QUESO IDIAZABAL




## IBILBIDEKO ETAPAK
LAS ETAPAS DE LA RUTA

**95,7** Km. — **Bide Zirkularra** / Ruta circular

**6** Etapak | Etapas — +4.920 / -4.857 m.

| Etapa | | Km. | Desnivel |
|---|---|---|---|
| 1 | **Ordizia** ▶ Segura | 13 Km. | +402 / -311 m. |
| 2 | Segura ▶ Mirandaola | 12,6 Km. | +669 / -466 m. |
| 3 | Mirandaola ▶ Arantzazu | 12 Km. | +864 / -566 m. |
| 4 | Arantzazu ▶ Etzegarate | 20,7 Km. | +1.199 / -1.218 m. |
| 5 | Etzegarate ▶ Lizarrusti | 14,5 Km. | +867 / -891 m. |
| 6 | Lizarrusti ▶ **Ordizia** | 22,9 Km. | +919 / -1405 m. |

## SARRERA
INTRODUCCIÓN

Idiazabal Gaztaren Ibilbidea edo GR-283 Gipuzkoako Mendizale Federazioak homologatutako ibilbidea da. Idiazabal Gaztaren Ibilbidea edo GR-283, 6 etapaz osatzen da. 9,777 metroko desnibel metatua du.

Jarrai ezazu Idiazabal Gazta egiteko ziklo guztia ardiak bazkatzen duten Aralar eta Aizkorri-Aratzeko parke naturaletatik, gaztaren erdigune diren Ordizia eta bere azoka, eta bere izena ematen dion Idiazabal bisitatuz.

Tartean etapa amaierako puntuetan alojamendu eskaintza zabala dugu zuretzat.

Ezagutu itzazu **Goierriko** sekretu guztiak, mugitu zaitez Txindoki, Larrunarri edo "Euskal Cervinoa"-ren begiradapean, eta kirola eginez sekula bizi gabeko esperientzia gastronomiko, kultural eta paisajistikoaren jabe egingo zara!

*La Ruta del Queso Idiazabal o GR 283 es una ruta homologada por la Federación Guipuzcoana de Montaña. Se compone de 6 etapas y la Ruta circular al completo tiene una longitud total de 95,7 kilómetros. Tiene un desnivel acumulado de 9,777 metros.*

*Tendrás la oportunidad de conocer el ciclo productivo del Queso Idiazabal de principio a fin, comenzando por los Parques Naturales de Aralar y Aizkorri-Aratz donde pasta la oveja latxa, las queserías donde se elabora, los mercados donde se comercializa, en especial el mercado de Ordizia, hasta el pueblo que le da nombre, Idiazabal.*

*Entre medias tenemos para tí una amplia oferta de alojamientos en los puntos donde acaban las etapas.*

*Te invitamos a conocer todos los secretos del **Goierri,** muévete ante la imponente mirada del Txindoki, Larrunarri o "Cervino Vasco", y practicando deporte ¡te harás dueño de una experiencia gastronómica, cultural y paisajística jamás vivida!*

**Kontratatu eta bizi zure esperientzia Idiazabal Gaztaren ibilbidean**

Contrata y vive tu experiencia en la Ruta del Queso Idiazabal

www.rutadelquesoidiazabal.com

**Abenturako aste batek ez du sekulan hainbeste eman...**
Nunca una semana de aventura dio para tanto












## 1 Ordizia ▶ Segura

13 Km. — +402 m. — 3h 55'




Etapa osoan zaindaria eta erreferentea da Txindoki, Goierri gobernatzen duen granitozko piramidea. Beasainen **Igartzako monumentu multzoan** geldialdi bat egitea merezi du, bertan ikus baitaitezke Erdi Arotik hona goierritarren lanbideak eta eraikin-motak ezin hobeto gorde dituen gunea. Handik aurrera, belaze artean Olaberriara goaz. Txindoki talaia bada, Olaberria da Goierriko balkoia. Handik aurrera Idiazabala iritsiko gara, Ibilbideari eta Euskal Herriko gazta ezagunenari izena ematen dion herrira. Han daude Artzainen monumentua eta Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa. Seguran amaituko da etapa, antzinako filme bat egiteko elementu historiko aproposak dituena.

*Esa gran pirámide de granito que es Txindoki nos contempla y protege durante toda la etapa. Merece la pena hacer una pequeña parada en el **conjunto monumental de Igartza,** ya que es un lugar donde se pueden observar perfectamente los oficios y los tipos de edificación del Goierri desde la Edad Media hasta nuestros días. Entre prados llegamos a Olaberria. Si Txindoki es la atalaya, Olaberria es el balcón del Goierri. De allí a Idiazabal, pueblo que da nombre a la Ruta y a la denominación de origen de nuestro queso más famoso. En el pueblo se pueden visitar el Monumento al Pastor y el Centro de Interpretación del Queso Idiazabal. Terminamos la etapa en Segura, repleto de historia, donde bien podría grabarse una película antigua.*



INTERESGUNEAK | PUNTOS DE INTERÉS

### Igartzako monumentu multzoa
Conjunto monumental de Igartza

Igartza XII. mendekoa da, jauregiaren lekuan defentsarako **dorretxe** bat zegoenean, garai hartako familiarteko guden erakusgarri. **Igartzako Jaunak** XVI. mendean eraiki zuten jauregia eta gaur egun bisitatu daitezkeen beharrezko zerbitzuak jarri zituzten inguruan: errota, burdinola, tolarea, zalditegiak, etab.

***Igartza** data del siglo XII, cuando en lugar del Palacio existía una **Casa-torre defensiva,** acorde con los tiempos de guerras entre banderizos. Los **señores de Igartza** construyeron el Palacio en el siglo XVI y lo rodearon de los servicios necesarios que puedes visitar: molino, ferrería, lagar, cuadras, etc.*

## 2 Segura ▶ Mirandaola

12,6 Km. — +669 m. — 4h 25'




Dena ez da gazta Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren inguruetan, eta meatzaritza eta burdingintza dira protagonistak etapa honetan. Seguratik gora, Ibilbidetik gertu daude Zeraingo Aizpeako labeak, Burdinaren Mendiko meatzeetatik ateratako minerala lantzeko erabilitakoak, XX. mende hasierako ingeniaritzaren erakusgarriak. Troi erreka ondotik behealdera goaz, Mutiloara. Meatzaritza arrastoak nonahi ageri dira. Aztiriatik jaitsiko gara Legazpi aldera, eta han amaituko dugu etapa, kondairak ezagun egin duen Mirandaolako burdinola historikoan.

*No todo es queso en el Parque Natural de Aizkorri-Aratz, y la minería y la ferrería son los protagonistas de esta etapa. Subimos desde Segura a Zerain, donde cerca de nuestro recorrido se encuentran los hornos de Aizpea, utilizados a principios del siglo XX para elaborar el mineral a partir de lo extraído de la Montaña de Hierro, ejemplo representativo de la ingeniería de entonces. Bajamos a la par de la regata Troi, a Mutiloa, por un tramo lleno de restos mineros. Subimos hasta Aztiria, para posteriormente volver a bajar a Legazpia. Allí termina esta etapa, en la histórica forja de Mirandaola, famosa por la leyenda.*



INTERESGUNEAK | PUNTOS DE INTERÉS

### Segura

Alfonso X Jakintsua Gaztelako erregeak 1256 urtean sortu zuen, Gaztelatik Pirinioen beste aldera zihoazen bideak babesteko intentzioarekin. Pena merezi du herria ezagutzea ederki mantentzen duen almendra forma duen hiribildua bait da eta urte luzez Gaztela eta Frantziaren arteko beharrezko pasagune izan zelako, gaur egun garaiko jauregi asko mantendu dituelarik.

*El rey de Castilla Alfonso X El Sabio fundó el pueblo de Segura en 1256, con el propósito de proteger los caminos que iban de la meseta al otro lado de los Pirineos. Merece la pena visitar Segura por su casco almendrado y porque durante muchos años un punto de paso obligado entre Castilla y Francia, y todavía hoy se conservan algunas casas solariegas y palacios de la época.*



### Zerain

Burdinaren ustiapena garrantzi handiko aktibitatea izan da Euskal Herriko historian, eta konkretuki Zeraingo paisaia indar handiz markatu du burdin eta ikatzaren ustiapenak. Landa eremuko giroa mantentzen jakin duen herri bat izan da. Museo Etnografikoa, kartzela, zerrategia eta burdinaren mendia bisitatu ditzakezu.

*La explotación de hierro ha sido de gran importancia en la historia del País Vasco, y en concreto extracción de hierro y carbón ha marcado con intensidad el paisaje de Zerain. Es uno de los pueblos vascos que ha sabido conservar el ambiente rural tradicional. Puedes visitar el museo Etnográfico, la cárcel, la serrería y la montaña del hierro.*

## 3 Mirandaola ▶ Arantzazu

12 Km. — +864 m. — 4h 45'




Antzinako siderurgiaren sinboloa da Mirandaola, duela urte batzuk berritu eta martxan dagoen burdinola. Aukera izanez gero, urteko igande gehienetan, olagizonak lanean ikustea oso gomendagarria da. Brinkola pasa eta Barrendiolako urtegia inguratuta, benetako artzain-txabolak daude Jandoainen. Biozkornako lepora iristen garenean erdietsiko dugu bideko punturik garaiena. Mallara, behealdera jaitsita tumulu batek eta han bazkatzen duten zaldiek osatutako paisaia ederra erreparatuko dugu. Duruko txabolak pasata, Arantzazun gaude.

*Mirandaola, ferrería restaurada y en funcionamiento desde hace unos años, es el símbolo de la siderurgia antigua. Si surge la ocasión, durante la mayoría de domingos del año, es muy recomendable ver a los ferrones trabajando. Atravesando Brinkola y rodeando el embalse de Barrendiola, nos encontramos con unas cabañas auténticas en Jandoain. Cuando arribemos al paso de Biozkorna llegaremos al punto más alto de esta etapa. Bajamos a Malla, observando la belleza de un entorno de túmulos y caballos que pastan. Pasando por la cabaña de Duru, estamos en Aránzazu.*

## 4 Arantzazu ▶ Etzegarate

20,7 Km. — +1.199 m. — 7h 35'




Euskal Herriak XX. mendeko artearen abangoardiei egindako ekarpena gorpuzten du Arantzazuk, eta kulturgintzaren gune garrantzitsua da. Euskara Batuaren abiapuntua izan zen, besteak beste. Arantzazutik Urbiako zelaietara goaz. Hango megalitoek eta txabolek adierazten dute aspalditik bizi izan dela gizakia han. Indarrak hartzeko, hango bentan salda hartzea ideia oso ona izan liteke. Oltza ingurutik aurrera, San Adriango pasabidera iritsiko gara, Gaztelara joateko komunikazio-bide historikoa, erromatarren garaitik joan-etorri eta pasadizo ugari ikusi dituena. Aizkorri aldez alde gurutzatzen du. Handik jarraituta, Añabasotik, Nafarroa, Araba eta Gipuzkoaren mugara hurreratuko gara. Etzegarate dugu han gure zain, etaparen amaiera.

*Aranzazu encarna la aportación vasca a las vanguardias artísticas del siglo XX, a la vez que es un centro importante de producción cultural. Fue punto de partida del euskara batua, entre otras cosas. De Aránzazu ascendemos a las campas de Urbia. Los megalitos y las cabañas del lugar demuestran que está habitado desde hace tiempo. Tomarse un caldo para reponer fuerzas en la venta de Urbia es una más que buena idea. Desde Olza, llegaremos al paso de San Adrián, histórica ruta de comunicación con Castilla que ha visto innumerables sucesos e idas y venidas desde la época romana y cruza Aizkorri de un lado a otro. Siguiendo la ruta, por Añabaso, nos acercamos a la frontera entre Navarra, Álava y Gipuzkoa. Nos está esperando Etzegarate, el final de la etapa.*



INTERESGUNEAK | PUNTOS DE INTERÉS

### Urbiako zelaiak eta artzain txabolak
Campas de Urbia y txabolas de pastores

Urbiako zelaietan mendeetan zehar artzainen bizi leku izan dira eta dira. Gaur egun oraindik hainbat txabola dago eta bertan artzainak bizi dira udaberri eta udaran bertan dagoen bazkarekin mendiko gaztak eginez.

*Las campas de Urbia son y han sido lugar habitado por pastores durante siglos. Todavía hoy en día se pueden ver decenas de txabolas habitadas por pastores que viven en primavera y verano y aprovechan la calidad del forraje de altura para elaborar queso de montaña..*

## 5 Etzegarate ▶ Lizarrusti

14,5 Km. — +867 m. — 5h 40'




Geure arbasoek makina bat aldiz egindako bidea da etapa hau. Isilik dauden arren, bidean ikusiko ditugun megalito eta tumulu andanak dira horren lekuko. Hasieran, berehala ikusiko dugu Altzaniako pagadi itzela, bere amaraunetik sortzen delarik Mediterraneorantz isurtzen den Gipuzkoako emari bakarra. Mendebaldeko Igartza tumulua, Bernoako kaltzada ederra, Zelatamuño,... gu baino milaka urte lehenago bizi izandakoen arrastoen parean, gaztetxoak dira bideko mugarriak. Gipuzkoa alde batean, Nafarroa bestean, gailur artean goaz. Alde guztietara erreparatuta ere, ikusgarria da parez pare irekitzen den paisaia. Eta bat-batean, konturatzeke, bide zidorrean behera eta behera goazela Lizarrustira iritsiko gara.

*Nuestros antepasados recorrieron esta etapa de la Ruta del Queso en incontables ocasiones. Es lo que nos cuentan, a pesar de estar en silencio, el montón de túmulos y megalitos que hay en el camino. Al principio, casi de salida, podemos observar el gran hayedo de Altzania, desde donde surge el único afluente de Gipuzkoa que alimenta el Mediterráneo. El túmulo de Igartza Oeste, la preciosa calzada de Bernoa, Zelatamuño... los jalones del camino son jovencitos al lado de los restos de los que habitaron estas tierras hace miles de años. Surcamos una arista con Gipuzkoa a un lado, Navarra al otro. Miremos donde miremos la vista es impresionante. Y de repente, casi sin darnos cuenta, bajando y bajando por un camino estrecho llegamos a Lizarrusti.*

## 6 Lizarrusti ▶ Ordizia

22,9 Km. — +919 m. — 7h 55'




Menditik hirira doan bidea, megalitoz betetako eremu karstiko batetik, artzainen ohiko ibilbidean. Batzuetan agertzen den arren, lur azpitik hanka azpian dugu paisaia guztia moldatu duen elementua: ura. Bistakoa da hori etaparen hasieran, Lareoko urtegi ederrean. Artaldeak nonahi ikus ditzakegu, larreetan bazkatzen, baita txabola batzuk ere. Oiduikoa da horren erakusgarri garbiena. Zaldibiatik pasa ostean Ordiziara iritsiko gara, Euskal Herriko azoka garrantzitsuenetako bat ospatzen den herrira. Aipatzekoak dira iraileko Euskal Jaietako azoka, Idiazabal gazta berria aurkezten den Artzainaren Eguna apirilean eta eguberrietako azoka berezia.

*El camino nos lleva de la montaña a las calles, por una zona cárstica rica en megalitos, en una ruta habitual de pastores. Bajo nuestros pies, aunque emerja en contadas ocasiones, discurre el elemento clave que ha modelado el entorno: el agua, que reluce con todo su esplendor en el embalse de Lareo. El paisaje está salpicado con numerosos rebaños que pastan en los prados con sus respectivas bordas -Oidui es la más representativa-. Después de pasar por Zaldibia llegaremos a Ordizia, donde todos los miércoles se celebra uno de los mercados más importantes del País Vasco. Cabe destacar el mercado extraordinario de Fiestas Vascas de septiembre, el día del pastor en abril, donde se presenta la temporada del nuevo Queso Idiazabal, y el último del año en Navidad.*



INTERESGUNEAK | PUNTOS DE INTERÉS

### Aralarko Dolmenak - Mitologia/Barandiaran
Dólmenes de Aralar - Mitología/Barandiaran

Euskal mitologiaren jaiotza Aralarren kokaturik dago eta Joxemiel Barandiaranen irudiarekin lotuta dago, Euskadiko etnologia eta antropologia, eta bereziki euskal mitologia aztertu zituen apaiza. Euskal Kulturaren aita bezala onartzen da. Aralarren trikuharri eta iruinarri kopuru handi bat ikusteko aukera izango duzu.

*La cuna de la mitología vasca se encuentra en Aralar y está vinculada a Joxe Migel Barandiaran, sacerdote dedicado al estudio etnológico y antropológico de Euskadi, con especial atención a la mitología vasca. Está considerado el patriarca de la cultura vasca. En Aralar podrás observar infinidad de conjuntos megalíticos de menhires y dólmenes.*



### Oiduiko txabolak eta Jentilarriko dolmena
Txabolas de Oidui y Dolmen de Jentillarri

Oiduira gerturatzea, Aralarren aitzineko biztanleak non bizi ziren ezagutzea da. Aralarren egingo dugun bide guztia txoko ederrez inguraturik dago, magiaz eta historiaz beteak eta jakina, monumentu megalitiko ugari, hala nola Jentillarriko trikuharri ikusgarria.

*Acercarse a Oidui supone conocer el lugar donde vivían antiguos habitantes de Aralar. El camino que recorreremos por todo Aralar está cubierto de rincones preciosos, llenos de magia y de historia, y por supuesto, gran cantidad de monumentos megalíticos como el espectacular dolmen de Jentillarri.*


Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

*Euskadi, auzolana, bien común*

turismo.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

% 100 birziklatutako paperean inprimatua. FSC ziurtagiriduna.
*Impreso en papel 100% reciclado, que cuenta con la certificación FSC.*




**GR 283**
IDIAZABAL GAZTAREN IBILBIDEA
*RUTA DEL QUESO IDIAZABAL*

PARKE NATURALAK
*PARQUES NATURALES*

PARKETXE
*CASA DEL PARQUE*

URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBA
*RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI*

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA
*GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA*

IBILBIDEAK
*PASEOS*

BIDE BERDEAK
*VÍAS VERDES*

DONEJAKUE BIDEA
*CAMINO DE SANTIAGO*

INAZIOTAR BIDEA
*CAMINO IGNACIANO*

BIRDING EUSKADI

CENTROS BTT EUSKADI ZENTROAK

SURFING EUSKADI

SENDERISMO EUSKADI
GR 38
ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA
*RUTA DEL VINO Y DEL PESACDO*

TRAIL ESTAZIOA
*ESTACIÓN DE TRAIL*






## Ezinbesteko 10ak
Los 10 imprescindibles de Euskadi




Asko dira Euskadi ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak. Berehala konturatuko zara bertako jendea eta historia ezagutzen duzunean, hiriek arnasten duten ondarea ikustean, eta, harik eta hobeto, mahai on baten inguruan iruzkintzen duzunean.

Son muchos los motivos que hacen de Euskadi un destino imprescindible. Lo vas a comprobar cuando conozcas su gente, su historia y su rico y variado patrimonio y aún mejor cuando lo comentes en torno a una buena mesa.

Ezagutu astebeteko mendi ibilbide zirkular honetan Gipuzkoa barnealdeko ingurune idilikoak: gozatu Euskadiko lur garaiak!

¡Conoce las zonas idílicas del interior de Gipuzkoa en esta ruta circular de montaña de una semana: disfruta de las Basque Highlands!




## GOMENDIOAK
RECOMENDACIONES

1 Bidezidorra balizatuta dago, baina GPS erabiltzea komeni da.
*El sendero está balizado, pero es recomendable el uso del GPS.*

2 Ibilbidea bakarrik ez egitea komeni da.
*Es aconsejable realizar el recorrido en compañía.*

3 Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.
*Planifica bien las etapas y adáptalas a tus posibilidades.*

4 Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.
*Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

5 Ez ahaztu dokumentazioa eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.
*No olvides documentación y dinero –o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.*

6 Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.
*Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de emergencia.*

7 Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.
*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

8 Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.
*Respeta el entorno que visitas y a los demás senderistas.*

## D´ELIKATUZ ZENTROA
CENTRO D´ELIKATUZ

D´elikatuz Zentroa Ordiziako Alde Zaharraren bihotzean, Barretxe eraikin historikoan dago kokatua. Bertan eskualdeko turismo bulegoa eta gastronomiaren eta elikaduraren IZ, GR 283 ibilbidearen 0. km izateaz gain. Goierriko eskualdeko erakargarritasun nagusiak erakusteaz gain, gure azokaren esentzia eta historia ezagutu ahal izango ditugu gure abenturari hasiera eman baino lehen.

*El **Centro de Interpretación D´elikatuz** está ubicado en la Casa Barretxe, uno de los edificios más importantes del casco histórico de Ordizia. En el mismo se ubica la oficina de turismo comarcal y el CI de la alimentación y la gastronomía además de ser el km. 0 de la **GR 283.** Podremos conocer los principales atractivos de la comarca del Goierri y la historia y la esencia de nuestro mercado antes de partir en nuestra aventura.*




## Turista arduratsuaren dekalogoa
Decálogo del turista responsable

1 Zerbitzu eta produktu turistikoen erabiltzaileen eskubideak ezagutu.
Conoce tus derechos como persona usuaria de servicios y productos turísticos.

2 Sustatu tokiko garapena.
Fomenta el desarrollo local.

3 Langileak era egokian tratatu.
Fomenta un trato adecuado a las personas trabajadoras.

4 Errespetatu aniztasuna.
Respeta la diversidad.

5 Gozatu tokiko kulturaz.
Disfruta de la cultura vasca.

6 Lagundu ondarea kontserbatzen.
Contribuye a la conservación del patrimonio.

7 Lagundu ingurumena zaintzen.
Contribuye a la preservación ambiental.

8 Aukeratu produktu eta zerbitzu jasangarriak.
Elige productos y servicios sostenibles.

9 Erabili garraio jasangarria.
Utiliza el transporte sostenible.

10 Izan zaitez turista arduratsua.
Sé un turista responsable.

#Beresponsible

## GELDITU ETA GOZATU...
PÁRATE Y DISFRUTA EN...



### 1 Ordizia

Ordizia, ondare natural, historiko, arkitektoniko eta kultural aberatseko herria da. 1268. urtean Alfonso X. Jakintsuak sortua, Ordiziaren bilakaeran ezinbestekoa izan da asteroko azoka. 1512an hiribildu osoa suntsitu zuen sutearen ondorioz etorri zen, Gaztelako Juana Eroa erreginak hiribilduari "urtean zehar, asteazkenero, merkatu librea eta zergarik gabekoa egiteko errege baimena". Mendez mende, Ordiziako azoka erreferente bihurtu da nekazal munduko produktuentzat. Besteak beste, baserriko fruta eta barazkientzat, Idiazabal gaztarentzat edota arkumearentzat.

*Ordizia es un municipio con un rico patrimonio natural, histórico, arquitectónico y cultural. Fundada en 1268 por el rey Alfonso X el Sabio, resulto clave la evolución de la villa la celebración de un mercado semanal. En 1512 y tras un incendio que destruyó la villa, Juana I de Castilla concedió a la villa "Real Licencia para celebrar mercado franco, libre de impuestos, todos los miércoles del año". Siglo a siglo el mercado de Ordizia se ha convertido en referente para los productos agrícolas, entre otros la fruta y verdura de nuestros caseríos, el queso Idiazabal o el cordero.*



### 2 Idiazabal

Idiazabalen, latxa ardiaren esne gordinez egiten den jatorrizko deitura ezagunari izena ematen dion herria, artzaingintzak garrantzi ekonomiko eta sozial handia izan du historian zehar eta ohikoa da ardi artaldeak edo artzainak topatzea bertan. Gaztaren Interpretazio eta dastatze zentroa bertan aurkitzen da: zentro honetan, gaztaren ekoizpenari buruzko gauzak ikasteaz gain, gazta dastatu ahal izango dugu, baita bertako gaztandegiak ezagutu ere.

*En Idiazabal, pueblo que da nombre a la famoso DO de queso elaborado con leche cruda de oveja latxa, el pastoreo ha tenido gran importancia económica y social a lo largo de la historia, por lo que es habitual encontrarse con rebaños de ovejas y pastores. Cuenta con un Centro de Interpretación y Degustación del Queso. En este centro puede conocer detalles acerca de la elaboración del queso Idiazabal, realizar una cata y visitar una quesería.*



### 3 Mirandaola

Mirandaolako parkean dagoen izen bereko burdinola XV. mendean Legazpin zeuden zazpietako bat da. XIX. mendean itxi zuten arren, Patrizio Etxeberriaren eta Teresa Agirreren mezenasgoari esker, zaharberritu egin zuten 1952an.

Apirilean hasita, igandero jartzen dute martxan bisitarientzat. Udazkenean eta neguan, berriz, hilabeteko aurreneko igandean soilik zabaltzen da.

*La ferrería de Mirandaola, ubicada dentro del parque de Mirandaola, es la única que se conserva de las siete que existían en Legazpi en el siglo XV. Aunque cerró sus instalaciones en el siglo XIX, fue restaurada en 1952 gracias al mecenazgo de Patricio Etxeberria y Teresa Agirre.*

*Actualmente, el primer domingo de cada mes de otoño e invierno y todos los domingos a partir de abril, la instalación es accionada por un molino y es posible verla funcionar.*



### 4 Arantzazu

Kondairak dioenez, Rodrigo de Balzategi izeneko artzain bati Ama Birjina agertu zitzaion elorri baten gainean. Harrituta, zera galdetu zion: "Arantzan zu?". Ondorengo mendeetan, frantziskotarrek gurtza, pelegrinazio, arte eta kultur gune bihurtu zuten Arantzazu.

1951 urtean eraikitzen hasia, abangoardia artistikoak nabarmentzen du Arantzazuko Santutegian. Garaiko molde arkitektonikoak apurtzen ditu, artista-mintegi batetik sortutako lanaren lekukotasun bakarra delako.

*Según la leyenda, a un pastor llamado Rodrigo de Balzategi se le apareció la Virgen sobre un espino y éste, asombrado, le preguntó: "Arantzan zu?" (¿Tú en un espino?). Durante los siguiente siglos los frailes franciscanos hicieron de Arantzazu un lugar de devoción y peregrinación, y un exponente del arte y la cultura.*

*Comenzado a construirse en 1951, el Santuario de Arantzazu destaca porque es testimonio único de la labor ejercida por un plantel de artistas que avanzó lo que sería la vanguardia artística, rompiendo con los moldes arquitectónicos de la época.*



### 5 San Adrián

70 metro luze dituen tunelak harrizko mendi bat zeharkatzen du, paraje izugarri batean kokaturik. San Adrian, erregeak, merkatariak eta Santiago bideko erromesak pasa diren historia handiko gune bat da. Mendeetan zehar Europatik Gaztelara sartzeko hainbat bidaiarien atea izan zen. Hain da garrantzitsua, garai batean naturaz gaineko zerbait iruditzen zitzaiela, batzuetan beldurgarria! Goierriko panoramika zabal bat ikusi nahi baduzu, familia guztiarekin egiteko txango hau gomendatzen dizugu. Iparraldeko Santiago bidea, San Adriango tunelarekin batera, UNESCO-ren gizateriaren ondare izendatua izan zen 2015. urtean.

*Un túnel de 70 metros atraviesa una montaña de roca, ubicado en un entorno espectacular. San Adrián es un lugar histórico por el que han transitado reyes, comerciantes y peregrinos del Camino de Santiago. Fue, durante siglos, la principal ruta de entrada de los viajeros europeos hacia Castilla. Es tan imponente que en esos tiempos les parecía algo sobrenatural, ¡incluso terrorífico! Si quieres ver una amplia panorámica del Goierri, te recomendamos esta excursión apta para toda la familia, muy accesible. El camino de Santiago del Norte, junto con el túnel de San Adrián, fueron declarados en 2015 Patrimonio Mundial de la Humanidad por la UNESCO.*

Ordizia · GR 283 · Beasain · Olaberria · Idiazabal · Segura · Zerain · Mutiloa · Mirandaola · Brinkola · GR 283 · Arantzazu · San Adrián · Etzegarate · Lizarrusti · Ordizia

**DESKARGATU ETAPA BAKOITZEKO TRACKAK ETA FITXAK**
DESCÁRGATE LAS FICHAS Y TRACKS DE CADA ETAPA

IDIAZABAL GAZTAREN IBILBIDEA
RUTA DEL QUESO IDIAZABAL
**- GR 283 -**
**www.rutadelquesoidiazabal.com**

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/